baikara

Gipuzkoako IGEen federazioa

# "BAIKARA"

GIPUZKOAKO EUSKAL ESKOLA

PUBLIKOKO IKASLEEN GURASOEN

FEDERAZIOAren

# ESTATUTUAK

........................................................................................

# ESTATUTOS

de "**BAIKARA**"

GIPUZKOAKO EUSKAL ESKOLA

PUBLIKOKO IKASLEEN GURASOEN

FEDERAZIOA

Basotxiki 36- atzealde. 20015 DONOSTIA
e-mail: baikara@baikara.eus
Teléf: 943 32 72 08 Fax: 943 27 49 77
www.baikara.eus

Nahi izanez gero, J0D0Z-T4EM6-V4SQ bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: https://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T4EM6-V4SQ en la sede electronica https://euskadi.eus/localizador

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

baikara

Gipuzkoako IGEen federazioa

## ADIERAZPEN PROGRAMATIKOA

**"BAIKARA – Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa"** hartzen ditu bere baitan. G.I.E.G.E. eta F.A.P.A.G.I. federakuntzen bategitetik sortua da. Ez dago inolako alderdi politikoren, talderen edo erlijio sinesmenen mende, eta ez du irabazi xederik ere. Giza kalitate eta kalitate pedagogikoko Euskal Eskola Publikoaren aldeko lana koordinatzeko beharra ikusten du, eta koordinazio lan hori guztien borondatea kontuan harturik eta parte hartzaile guztien begirunean eta askatasunean oinarriturik egin behar dela irizten dio.

Horretarako Eskola Publiko Euskalduna, Aurrerakoia, Berrizalea, Autonomoa, Gestio Demokratikoan oinarritua lortzea du helburu; heziketa prozesu guztian zehar gurasoen eta tutoreen parte hartzea eta beren seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gai guztietan, bai gai didaktiko zein teknikoetan, Heziketa Komunitatea osatzen duten gainerako estamentuekin batera, erabakiak hartzeko duten ahalmena bermatuko duen eskola eredu bat proposatzen du, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko bide gisa.

Esku hartze aktibo eta arduratsu horrek Ikastetxe bakoitzak bere heziketa eta hizkuntza proiektuak aurrera eramateko bidea emango du, eta proiektu horiek aurrera eramateko laguntza eskainiko die Heziketa Komunitatea osatzen duten gainerako estamentuei. Eskola eta ingurune sozialaren arteko lotura indartuko du, gizarte, kultura eta beste zenbait alorretara zabalduz eskola. Eta orobat, heziketa eta hizkuntza identitateari dagokionez xede bera duten beste lurralde batzuetako alorrekiko harremanak ere bultzatuko ditu.

## DECLARACION PROGRAMATICA

La Federación **"BAIKARA – Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa"** acoge en su seno a las Asociaciones de Madres y Padres del Alumnado (AMPA) de los Centros Públicos de Gipuzkoa. Nace de la fusión de las Federaciones G.I.E.G.E. y F.A.P.A.G.I. Se declara independiente de cualquier partido político, grupo o confesión religiosa y sin ánimo de lucro. Es consciente de la necesidad existente de coordinar la labor en la defensa de una Escuela Pública Vasca de calidad humana y pedagógica, sobre la base de la unión de voluntades y del respeto mutuo y libertad de todos sus participantes.

Para ello su propuesta es conseguir una Escuela Pública Euskaldun, Progresista, Innovadora, Autónoma y de Gestión democrática, que defienda la plena participación de las Madres, Padres y Tutores en todo el proceso educativo y su capacidad de decisión junto al resto de la Comunidad Educativa, en todos los temas que afectan a la educación de sus hijas e hijos, tanto didácticos como técnicos y organizativos, que posibiliten la mejora permanente de la calidad de enseñanza.

Esa participación activa y responsable, potenciará la realización de proyectos educativos y lingüísticos propios de cada Centro, prestando su apoyo al resto de Estamentos copartícipes de la Comunidad Educativa en la materialización de los mismos. Promoverá la vinculación de la escuela con el entorno social haciendo que ésta se abra a los distintos sectores sociales, culturales, etc. y de otros ámbitos territoriales con los que comparta el mismo afán de identidad educativa y cultural.

baikara

Gipuzkoako IGEen federazioa

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

Proiektu berrizaleak eratu eta bideratuko ditu, asmo oneko lehia indartuko du eta ikasle guztien berdintasuna lortzera bideraturiko oreka neurriak lortzeko lan egingo du. Era berean, Federakuntza osatzen duten IGEek identitate kulturala, sozio-linguistikoa etab. sustatzeko antolatzen dituzten kultura eta kirol ekintzak aurrera eramateko laguntza eskainiko du gizabanakoaren eta gizartearen beharrei erantzuteko gai izango den Sare Publiko bat lortzearren.

Potenciará y apoyará proyectos innovadores, estimulará la sana competencia y trabajará por el logro de medidas compensatorias que mejoren la igualdad de todo el alumnado. Así mismo, potenciará el desarrollo y promoción de todas aquellas actividades culturales y deportivas que promuevan sus AMPAs asociadas y que estén encaminadas hacia el refuerzo de la identidad cultural, socio-lingüística, etc. potenciando una Red Pública que dé respuesta a todas las necesidades personales y sociales.

Horren arabera, Gurasoek, edo ikasleek, norberak nahi duen Ikastetxea aukeratzeko duten eskubidearen alde lan egingo du.

En base a ello, apoyará y defenderá la libre elección de Centro por parte de las madres y padres, y en su caso del alumnado.

Federakuntzako bazkide diren Elkarteen arteko laguntza, harremanak eta koordinazioa bideratzeko organo bat izango da.

Será un órgano de apoyo, relación y coordinación entre las Asociaciones que la formen.

Federakuntza osatzen duten Elkarteek erabateko autonomia izango dute beren ekintzak antolatu eta aurrera eramateko.

Las Asociaciones federadas gozarán de plena autonomía en el desarrollo y organización de sus actividades.

Federakuntzak legez hartzen dituen erabakiak derrigor bete beharko dituzte bazkide diren Elkarteek, beraiei dagozkienean erabaki horiek. Federakuntzak hartzen dituen erabakiak ez betetzeak zigorra ekar lezake, Estatutu hauek araututakoaren arabera.

La defensa y ejecución de los acuerdos que válidamente puedan ser adoptados por la Federación serán llevados a cabo por las Asociaciones y en cuanto a las mismas pueda concernir. El incumplimiento de dichos acuerdos será susceptible de sanción conforme a lo dispuesto en los presentes Estatutos.

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

## I. ATALA - FEDERAZIOTZAZ

### 1. ARTIKULUA. - IZENA

1998ko ekainaren 20an eratu, eta 2000ko urtarrilaren 31an inskribaturiko eta Erregistro zenbakia FD/G/00104/2000 duen irabazteko asmorik gabeko Federazioko **"BAIKARA" –Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa-**, Ekainaren 22ko Euskadiko Elkarteei buruzko 7/2007 Legeak dioenari eta Elkartze Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak dioenari jarraituz berritu dira, Euskadiko Autonomia Estatutuko 9 eta 10.13 artikuluek ezartzen dutenarekin bat etorrita, eta gaurkotuak 2014ko azaroaren 8an egindako ez ohiko Batzar Orokorran.

G.I.E.G.E. eta F.A.P.A.G.I. I.G.E.en bategitetik sorturiko Federazio hau arautuko dute Estatutu hauek –non eta ez dioten kontra egiten Legeak agintzen duenari–, Federazioaren Zuzendaritza Organoek hartutako erabakiek –non eta ez dioten kontra egiten Legeak edota Estatuek agintzen dutenari– eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen Arauzko Xedapenek, Xedapen gehigarri gisa.

Federazioko bazkide izango dira bere borondatez hala eskatzen duten Gipuzkoako Unibertsitateaz kapoko Ikastetxe Publikoetako Ikasleen Guraso Elkarte (IGE) guztiak, Federakuntzaren helburuak eta haren Estatutuak onartzen badituzte.

## CAPITULO I. - DE LA FEDERACION

### ARTÍCULO 1º . - DENOMINACION

Los presentes Estatutos de la FEDERACIÓN sin ánimo de lucro **"BAIKARA" –Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa** de Donostia-San Sebastián, nº de Registro FD/G/00104/2000, constituida con fecha de veinte de junio de 1998 e inscrita con fecha de 31 de enero de 2000, han sido modificados de conformidad con lo establecido en la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi y la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación, de acuerdo con lo establecido en los artículos 9 y 10.13 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, por acuerdo de la Asamblea General Extraordinaria celebrada con fecha 8 de noviembre de 2014.

Dicha Federación, nacida de la fusión de las F.A.M.P.A.s G.I.E.G.E. y F.A.P.A.G.I. se regirá por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos válidamente adoptados por sus Órganos de Gobierno, siempre que no sean contrarios a la Ley y/o a los Estatutos y por las Disposiciones Reglamentarias que apruebe el Gobierno Vasco, que solamente tendrán carácter supletorio.

La Federación estará formada por todas las Asociaciones de Madres y Padres del Alumnado (AMPA) que asisten a los Centros Públicos de Gipuzkoa, de carácter no Universitario y que deseen integrarse libremente en la misma, siempre que acepten los fines de la Federación y el contenido de sus Estatutos.

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

## 2. ARTIKULUA- HELBURUAK

**BAIKARAk -Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa–,** bere bazkide diren IGEen ekintzak koordinatzeaz gainera, indarrean dagoen legediak eta bere Estatutuek ezartzen dituzten betebeharrak begiratuko ditu eta elkarteen artean lotura bultzatuko du eta beren helburu komunak betetzen lagunduko die.
Honako helburu hauek lortzeko lan egingo du:

**1.-** Ikastetxe Publikoetan ikasketak egiten ari diren ikasleen Gurasoek eta Tutoreek Ikastetxe horien jardunean parte hartzeko duten eskubidea sustatzea eta begiratzea.

**2.-** Kalitate tekniko bikaineko irakaskuntza humanistiko eta zientifikoa lortzea, izpiritu kritikoan oinarritua, desberdintasunak desagerraraztera bideratua eta aniztasuna errespetatuko duena.

**3.-** Ondoko ezaugarriak izango dituen Euskal Eskola Publiko bat lortzea:

- Euskal Herriko kulturan, gizartean, politikan eta ekonomian txertaturiko Euskal Eskola Publikoa, dinamikoa eta sortzailea, kultura identitatea (hizkuntza, historia...) berreskuratzeko ahalegina egingo duena.

- Doako Euskal Eskola Publikoa, guztiei aukera berberak emango dizkiona, diru publikoaz finantzatua eta ikaslearen heziketa orokorra hartuko duena bere baitan. (Doakoa esaten denean ez da esan nahi doako iraskuntzak soilik baizik eta baita formaziorako jarduera guztiek, testu liburuek, eskolarako materialak, jangelen zerbitzuak, garraioak, etab. doakoak behar dutela izan).

## ARTICULO 2º. - FINES

**"BAIKARA"- Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa**, además de coordinar las actividades de las AMPAs miembros, velando por la observancia de las obligaciones impuestas por la legislación vigente y sus respectivos Estatutos y potenciar los vínculos de unión y el desarrollo de los fines que les son propios entre las distintas asociaciones, se propone la consecución de los siguientes fines:

**1.-** La promoción y defensa del derecho de los Padres, Madres y Tutores del Alumnado que asisten a los Centros de Enseñanza Pública a una participación plena en el funcionamiento de éstos Centros.

**2. -** El lograr una enseñanza humanística y científica, de alta calidad técnica y que desarrolle un espíritu crítico libre, compensadora de desigualdades e integradora de la diversidad.

**3.-** Conseguir que la Escuela Pública Vasca:

- Esté enraizada culturalmente en Euskal Herria de una forma dinámica y creativa, plenamente integrada en el medio social, político y económico, activa en la recuperación de la identidad cultural: lengua, sentido histórico, etc...

- Sea gratuita, en igualdad de condiciones, financiada con fondos públicos, contemplando en ella la formación global del alumnado (entendemos gratuita, aquella que tiene presente, no únicamente la instrucción, sino todas las actividades formativas, los libros de texto, el material escolar, el servicio de comedores, transporte, etc...)

- Euskal Eskola Publiko autonomoa, demokratikoa eta pluralista, gurasoen parte hartzea, Heziketa Komunitatea osatzen duten gainerako estamentuenarekin batera, aintzat hartuko duena.

- Guztiei aukera berberak eskainiko dizkien Euskal Eskola Publikoa.

- Heziketa Komunitateko kide guztien adierazpen askatasuna bermatuko duen Euskal Eskola Publikoa, arrazoi ekonomiko, juridiko, sozial edo erlijoen ondoriozko bereizketarik, eta ezta sexu, arraza edo bestelako arrazoien ondoriozkorik ere, egingo ez duena.

- Behar bezala instalazioak izango dituen Euskal Eskola Publikoa, irakaskuntza jarduera gorabeherarik gabe aurrera eramateko baliabide material zein pedagogikoak izango dituena.

**3.** -Bi hizkuntza ofizialak ezagutu eta erabiltzeko almena bermatuko duen derrigorrezko eskolatzea lortzea, ikasketak zein hizkuntzatan osatu nahi dituzten hautatzeko aukera izan dezaten ikasleek.

**4.** -Gurasoen eskaerei erantzuteko ahalmena izango duen Haur Heziketa eskaintzea. Derrigorrezko irakaskuntzatik atera eta lanaren munduan sartu bitarteko aldirako erantzun egokia emateko eskatuko da, halaber.

**3. ARTIKULUA. - JARDUERAK**

Hemen aipatu diren helburuak lortzeko Federazioak ondoko zereginak beteko ditu, legeak agintzen duenari jarraituz:

- Sea autónoma, democrática y pluralista, contemplando la participación de los padres y madres, juntamente con los demás estamentos de la Comunidad Educativa.

- Haga efectiva una igualdad de oportunidades, sin ningún tipo de condicionamiento.

- Garantice la libertad de expresión en toda la Comunidad Educativa, la no discriminación por razones de económicas, jurídicas, sociales o religiosas, por razón de sexo, raza, nacimiento u otras.

- Esté dotada de instalaciones dignas y disponga, tanto de medios materiales como pedagógicos suficientes, para desarrollar con entera normalidad su actividad docente.

**4.-** Conseguir una escolarización obligatoria que garantice el conocimiento y uso de las dos lenguas oficiales, de forma que el alumnado pueda elegir libremente la continuidad de sus estudios en cualquiera de ellas.

**5. -** Exigencia de una oferta de Educación Infantil que responda a la demanda de las madres y padres. Exigir asimismo una respuesta adecuada para el alumnado tras la enseñanza obligatoria hasta su acceso al mundo laboral.

**ARTICULO 3º. - ACTIVIDADES**

Para la consecución de dichos fines se llevará a cabo, previo el cumplimiento de los requisitos legales establecidos, las siguientes actividades:

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

**a)** Udal, barruti, lurralde, autonomia, estatu eta beste edonolako organismoetan parte hartu Irakaskuntza Publikoari dagozkion gaietan, eta haien osaeran, eta parte hartu, orobat, Irakaskuntza Publikoarekin zerikusia duten organismoen osaeran.
**b)** Elkarteen interesen ordezkari eta begirale izan Heziketa Sistemari dagozkion gaietan.
**c)** Federakuntza honetako kide diren Elkarte guztien ahaleginak, kezkak eta helburuak bultzatu eta koordinatu.

**d)** Ikasleen gurasoen prestakuntza zibiko eta intelektuala areagotzera bideraturiko era guztietako heziketa jarduera sozial eta kulturalak sustatu.
**e)** Euskara eta Euskal Herriko kultura indartu.

**f)** Elkarterik ez dagoen Ikastetxeetan Elkarteak sortu.
**g)** Ikasleen gurasoen formaziorako ekintzak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatu eta bultzatu, eta laguntza zerbitzu informatiboak, juridikoak... antolatu.

**h)** Irakaskuntzan eskumena duten Organismoen eta Autoritateen aurrean gestioak egin, Irakasleen maila eta prestakuntza hobetzeko.

**i)** Batzar Orokorrak horrela erabakiz gero gaur egun eratuta dauden eta etorkizunean era litezkeen antzeko erakundeekin bat egiteko aukera eman.

**j)** Gure ingurune sozio-politiko, kultural eta ekonomikoko estamentuekin elkarrizketak egin eta hitzarmenak eratu, Irakaskuntza Publikoari dagozkion gaietan, oro har, eta bereziki Euskal Eskola Publikoari dagozkion gaietan.
**k)** IGEei zerbitzu hauek emateko, BAIKARA Federazioak behar diren langile adituak kontratatuko ditu bere aldetik, Ikasleen Guraso Elkarteek beharrezko irizten dioten jarduerak antolatu eta aurrera atera ditzaten.

**a)** Participar en los organismos municipales, de circunscripción, territoriales, autonómicos, estatales y cualesquiera otros Entes en disposiciones que afecten a la Enseñanza Pública, así como en la elaboración de éstos.
**b)** Representar y defender los intereses de las Asociaciones en todo cuanto afecte al Sistema Educativo.
**c)** Potenciar y coordinar los esfuerzos, inquietudes y aspiraciones de todas las Asociaciones, que pertenezcan a esta Federación.
**d)** Promocionar toda clase de actividades educativas sociales y culturales que sirvan para mejorar la formación cívica e intelectual de padres y madres del alumnado.
**e)** Potenciar el euskera y la cultura de Euskal Herria

**f)** Promocionar la creación de Asociaciones en todos los Centros donde no existan
**g)** Animar y promover la organización de actividades de formación para los padres y madres del alumnado, actividades extraescolares y complementarias así como servicios de apoyo de orden informativo, asistencial y jurídico.
**h)** Procurar, a la vez, mediante gestiones ante los Organismos competentes y Autoridades relacionadas con la Enseñanza, la mejora y perfeccionamiento continuado del Profesorado.
**i)** Quedar abierta a la integración previo acuerdo de la Asamblea General, con otras organizaciones afines, constituidas o que puedan constituirse en el futuro.
**j)** Establecer conversaciones y suscribir acuerdos con todos los Estamentos de nuestro entorno socio-político, cultural y económico en todo lo concerniente a la Enseñanza Pública en general, y en particular, en todo aquello que pueda afectar a la Escuela Pública Vasca.
**k)** Para la prestación de estos servicios a las AMPAs BAIKARA Federazioa podrá contratar al personal cualificado necesario para llevar a buen término las actividades que éstas estimen oportuno organizar.

**l)** Bazkide diren IGE-en ordezkaritza eta ahalduntzea Gizarte Segurantzaren eta gainerako administrazioen erregistro elektronikoetan.

Eta Federazio honen helburu gisa finkatutakoak lortzeko beharrezko ikusten den beste edozein jarduera.

Aurreko atalean aipatu diren zereginez gainera, bere helburuak lortzearren Federazioak aukera izango du:

- Bere helburuak betetzen lagunduko dioten era guztietako jarduera ekonomikoak aurrera eramateko, eta era guztietako baliabideak eskuratzen ahalegintzeko.

- Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egitea.

- Legeak eta bere Estatutuek agintzen dutenari jarraituz, era guztietako jarduerak aurrera eramateko.

**l)** Representación y apoderamiento de las AMPA-s asociadas en los Registros electrónicos de la Seguridad Social y demás administraciones.

Y cualquier otra que sea precisa para conseguir los fines propuestos por la Federación.

Sin perjuicio de las actividades descritas en el apartado anterior, la Federación para el cumplimiento de sus fines podrá:

-Desarrollar actividades económicas de todo tipo, encaminadas a la realización de sus fines, así como allegar recursos de todo género.

- Adquirir y poseer bienes de todas clases y por cualquier título, así como celebrar actos y contratos de todo género.

- Ejercitar toda clase de acciones conforme a las leyes o a sus Estatutos.

**<u>4. ARTIKULUA</u> . - EGOITZA SOZIALA**

**BAIKARA** Federazioaren egoitza Donostian dago, Intxaurrondo auzoan, Baso-Txiki kalea, 36. atzealdea.

Elkarteak, horretaz gain, beste egoitzarik eduki dezake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokor Bereziak horrela erabakiz gero.

Zuzendaritza Batzordeak hartuko ditu egoitza aldaketari eta Federazioak izan litzakeen gainerako lokalen aldaketari buruzko erabakiak, eta emango du aldaketa horien berri Elkarteen Erregistroan.

**<u>ARTICULO 4º</u> . - DOMICILIO SOCIAL**

El domicilio social de la Federación **"BAIKARA"** estará ubicado en Donostia, barrio de Intxaurrondo en la c/Baso-Txiki, nº 36. bajo-trasera.

La Federación podrá disponer de otros locales en el ámbito de la Comunidad Autónoma, cuando lo acuerde la Asamblea General Extraordinaria.

Los traslados del domicilio social y demás locales con que cuente la Federación serán acordados por la Junta Directiva, la cual comunicará al Registro de Asociaciones la nueva dirección.

**<u>5. ARTIKULUA</u> . - LURRALDE ESPARRUA**

**BAIKARA** Federazioak bere jarduera aurrera eramango duen lurralde

**<u>ARTICULO 5º</u> . - AMBITO TERRITORIAL**

El ámbito territorial en el que se desarrollará principalmente sus funciones

esparrua Gipuzkoako Lurralde Historikoa izango da oro har.

comprende el del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**6. ARTIKULUA . - IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA**

**"BAIKARA" – Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioak** izaera iraunkor mugagabea du, eta Ez Ohiko Batzar Orokorrean horrela erabakiz gero, VI. Atalean zehaztutakoaren arabera, edo Legeek aurreikusten dituzten gainerako arrazoiengatik bakarrik desegingo da.

Federazioaren funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoak izan beharko dira, eta pluraltasuna erabat errespetatu beharko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

**ARTICULO 6º . - DURACION Y CARÁCTER DEMOCRATICO**

La Federación denominada **"BAIKARA", Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa**, se constituye con carácter permanente, y sólo se disolverá por acuerdo de la Asamblea General Extraordinaria, según lo dispuesto en el Capítulo VI, y demás causas previstas por las Leyes.

La organización interna y el funcionamiento de la Asociación deberán ser democráticos, con pleno respeto al pluralismo. Serán nulos de pleno derecho los pactos, disposiciones estatutarias y acuerdos que desconozcan cualquiera de los aspectos del derecho fundamental de asociación.

## II. ATALA- ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

**7. ARTIKULUA - ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK**

**"BAIKARAk"** hiru Zuzendaritza eta Administrazio Organo izango ditu:

- Batzar Orokorra.-
- Zuzendaritza Batzordea.-
- Batzorde Iraunkorra.-

**8. ARTIKULUA . - BATZAR OROKORRA**

Batzar Orokorra Federazioko IGE guztiek osatua izango da. Federazioaren baitako organo gorena da, ordezkaritzari eta erabakiak hartzeko ahalmenari dagokionez, eta hark hartzen dituen

## CAPITULO II.- DE LOS ORGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACION

**ARTICULO 7º . - ORGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACION**

**"BAIKARA"** estará regida por tres Órganos de Gobierno y Administración:

- La Asamblea General.-
- La Junta Directiva.-
- La Comisión Permanente.-

**ARTICULO 8º . - ASAMBLEA GENERAL**

La Asamblea General, integrada por representantes de todas las AMPAs Federadas, es el máximo Órgano de representación y decisión de la Federación y sus acuerdos serán de obligado

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

erabakiak derrigor bete beharrekoak izango dira Federazioko kide diren IGE guztientzat. Batzar Orokorrak Ohikoak zein Ez Ohikoak izan daitezke.

Ordezkaritza irizpideak Ikastetxe bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera finkatuko dira, ondoko baremoari jarraituz:

110 ikasle artean ................IGEko bina ordezkari
111-250 ikasle artean........IGEko hiruna ordezkari
251-400 ikasle artean........IGEko launa ordezkari
401-550 ikasle artean........IGEko bosna ordezkari
551-700 ikasle artean.........IGEko seina ordezkari
701-850 ikasle artean........IGEko zazpina ordezkari
851-1.000 ikasle artean............... IGEko zortzina ordezkari
1.001 ikasletik gora.................... IGEko bederatzina ordezkari

IGEen ordezkari bakoitzak boto bat emateko eskubidea du.

## 9. ARTIKULUA. - BATZAR OROKORRA

Batzar Orokorra urtean behin bilduko da, gutxienez, Ohiko Bileran, urteko bigarren hiruhilabetean. Ohiko deialdi horretan onartuko dira: Federazioaren jardueraren plagintza orokorra, aurreko urteko kontuen egoera eta diru sarrerak eta gastuak, hurrengo ikasturterako aurrekontua eta Zuzendaritza Batzordearen gestioa. Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrak agintzen diona beteko du, eta haren kontrolpean arituko da beti.

## 10. ARTIKULUA. - BATZAR OROKORRAREN ZEREGINAK ETA ESKUMENAK

Aurreko atalean esandakoa baztertu

cumplimiento para sus AMPAs asociadas. Se reunirá en sesiones ordinarias y extraordinarias.

Los criterios de representatividad se aplicarán sobre la base del número de Alumnos/as de cada Centro Escolar y de acuerdo con el siguiente baremo:

Hasta 110 alumnos/as....... dos Representantes por AMPA
de 111 a 250 alumnos/as.... tres Representantes por AMPA
de 251 a 400 alumnos/as... cuatro Representantes por AMPA
de 401 a 550 alumnos/as.. cinco Representantes por AMPA
de 551 a 700 alumnos/as.. seis Representantes por AMPA
de 701 a 850 alumnos/as.. siete Representantes por AMPA
de 851 a 1.000 alumnos/as ocho Representantes por AMPA
más de 1.001 alumnos/as . nueve representantes por AMPA.

Cada representante de AMPA dispondrá de un voto.

## ARTICULO 9º . - ASAMBLEA GENERAL

La Asamblea General deberá ser convocada en sesión Ordinaria, al menos, una vez al año y dentro del segundo trimestre del año, a fin de aprobar el plan general de actuación de la Federación, el estado de cuentas e ingresos correspondiente al año anterior y el presupuesto del ejercicio siguiente, así como la gestión de la Junta Directiva, que deberá actuar siempre de acuerdo con las directrices y bajo control de aquella.

## ARTICULO 10º . - COMPETENCIAS DE LA ASAMBLEA GENERAL

Sin perjuicio de lo dispuesto en el

gabe, Batzar Orokorrak hartuko ditu ondoko gaiei buruzko erabakiak:

1. Estatutuen berrikuntza eta aldaketa, hurrengo artikuluak dioenari jarraituz.
2. Zuzendaritza Batzordea hautatzea eta berritzea.
3. Federazioa desegitea, halakorik gertatuko balitz.
4. Federazioan sartzeko eskaera egiten duten Elkarteen alta eta Federaziotik irteteko eskaera egiten dutenen baja.
5. Beste Elkarte batzuekin Federakuntza edo Konfederakuntza osatzea, edo horietakoren bateko kide izanez gero, horietatik irtetea.
6. Federazioko kide diren Elkarteek ordaindu beharreko ohiko kuotak eta kuota bereziak zehaztu. Kuota hauen zenbatekoa zehazteko, honako irizpide hauek hartu beharko dira kontuan:

   6.1. 30,05 euro-ko gutxieneko kuota bat finkatuko da egoera berezia bizi duten Ikastetxeetako IGEentzat; egoera berezia zein Ikastetxek duen Zuzendaritza Batzordeak aztertu beharko du, eta Batzordeak erabakiko du, beraz, gutxieneko kuota noiz aplikatu.

   6.2 Gehieneko kuota bat zehaztuko da, ikasleko ezartzen den kuota bider mila eginez kalkulatuko dena.

7. Kontuak Ikuskatzeko Batzordea izendatzea, halakorik behar izanez gero.
8. Ondasunak xedatu edo besterentzea.
9. Ordezkaritza organoetako kideen

artículo anterior son competencias de la Asamblea General, los acuerdos relativos a:

1. Modificaciones y cambio de los Estatutos, de conformidad con lo previsto en el artículo siguiente.
2. La elección de la Junta Directiva, así como su renovación
3. La disolución de la Federación en su caso.
4. Ratificar la alta y/o la baja de las Asociaciones que lo soliciten.
5. La Federación y Confederación con otras Asociaciones, o el abandono de alguna de ellas.

6. Determinar las cuotas ordinarias y extraordinarias a satisfacer por las Asociaciones Federadas. A la hora de determinar el importe de estas cuotas se tendrán en cuenta las siguientes limitaciones:

   6.1 se establece una cuota mínima a abonar de 30,05 euros que se aplicará a aquellas AMPAs que representen a Centros que presenten circunstancias especiales, siendo éstas valoradas en cada caso por la Junta Directiva, quién decidirá si procede o no la aplicación de esta cuota mínima.

   6.2. Se establece una cuota máxima a abonar, que será el resultado de multiplicar por mil la cuota que se establezca por alumno/a.

7. Nombramiento, si procede, de la Comisión Revisora de Cuentas.
8. Disposición o enajenación de bienes.
9. Acordar, en su caso, la

ordainsariak adostea, hala dagokionean.

10. Beste sozietate-organoren bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

11. Zuzendaritza Batzordeari ahalmena ematea behar diren giza baliabideak eta baliagai materialak kontratatzeko, IGEek, bere helburu sozialen konplimenduan, antolatzen dituzten jarduerak aurrera atera ditzaten.

remuneración de los/las miembros de los órganos de representación.

10. Cualquiera otra competencia no atribuida a otro órgano social.

11. Facultar a la Junta Directiva para contratar los recursos humanos y materiales precisos para las actividades que organicen las AMPAs en el cumplimiento de sus fines sociales.

**11. ARTIKULUA.- EZ OHIKO BATZAR OROKORRA BILTZEKO DEIALDIA**

Batzar Orokorraren Ez Ohiko bilera egiteko erabakia Zuzendaritza Batzordeak hartuko du, bere borondateaz edo Federazioko IGEen %20ak hala eskatuta, baldin eta botoen %20 osatzen badute Elkarte horiek; Ez Ohiko bilerarako deialdiarekin batera bileraren arrazoiak eta helburuak emango ditu aditzera, eta ondoko gaien inguruko azterketa egiteko eta erabakiak hartzeko:

a) Estatutuak eraberritzea.
b) Federazioa desegitea.
c) Federazioa onura publikorako erakunde izenda dezaten eskatzea.
d) Artikulu honetako lehenengo atalean zehaztu diren baldintzak betetzen dituztenek eskaturiko beste edozein gai.

Bilera deitzeko eskaera idatziz egingo zaio Federazioaren Lehendakaritzari. Lehendakaritzak eskaera jasotzen duenetik 30 egunen barruan egingo da bilera. Federazioko Idazkaritzak egingo du beti deialdia.

**ARTICULO 11º.- CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL EXTRAORDINARIA**

La Asamblea General, se reunirá en sesión extraordinaria cuando así lo acuerde la Junta Directiva, bien por propia iniciativa, o por que lo solicite el 20% de las AMPAs asociadas que, a su vez representen al veinte por ciento de los votos, indicando los motivos y los fines de la reunión, y en todo caso, para conocer y decidir sobre las siguientes materias:

a) Modificación estatutaria.
b) Disolución de la Federación.
c) Solicitar la declaración de utilidad pública de la Federación.
d) Cualquier otra materia que sea solicitada por quienes cumplan los mismos requisitos que constan en el primer apartado de este artículo.

La petición será dirigida por escrito a la presidencia de la Federación y esta convocará la Asamblea dentro de los 30 días siguientes a la petición. La convocatoria se hará en todos los casos por la Secretaría de la Federación.

**12. ARTIKULUA.- BATZAR OROKORRA BILTZEKO DEIA EGITEKO ARAUAK**

Batzar Orokorra, izan Ohikoa ala Ez Ohiko, biltzeko deia idatziz egingo da; deialdian bilera non, noiz eta zer ordutan

**ARTICULO 12º.- NORMAS PARA LA CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL**

Las convocatorias de Asambleas Generales, sean ordinarias o extraordinarias, serán hechas por escrito,

egingo den emango da aditzera, eta Gai Zerrenda ere azalduko da. Federazioa osatzen duten IGE guztietako Lehendakariei bidaliko zaie postaz; presazko deialdia denean, edo egoerak horrela eskatzen duenean, postaren ordez beste bideren bat erabili ahal izango da, adibidez faxa edo Internet sarea. Deialdia egiten den egunaren eta Batzarra biltzeko finkaturiko egunaren artean gutxienez 15 eguneko tartea egongo da; 1. deialdia zein ordutan eta 2. deialdia zein ordutan (aurrekoa baino ordu erdi geroago) izango diren emango da aditzera.

expresando el lugar, fecha y hora de la reunión, así como el Orden del Día y será enviada por correo a los/as Presidentes/as de las AMPAs Federadas y a nombre de éstas. En casos de urgencia y cuando la situación lo exija, podrá utilizarse otro u otros medios como telefax y/o Internet. Entre la convocatoria y el día señalado para la celebración de la Asamblea, deberán mediar al menos 15 días, en la citación constará la hora de la 1ª convocatoria y la hora de la 2ª convocatoria, siendo ésta media hora después de la fijada para la 1ª convocatoria.

## 13. ARTIKULUA . - BATZAR OROKORRAREN OSAERA

Batzar Orokorra, Ohikoa zein Ez Ohikoa, lehen deialdian osatzeko Federazioko IGE guztien erdia gehi bat egongo dira ordezkaturik, ordezkaritza horrek orotarako ordezkaritza kuotaren %51 hartu beharko duela, gutxienez. Batzar Orokorra bigarren deialdian osatzeko ez da kontuan hartuko zenbat IGEetako ordezkariak dauden eta zenbateko portzentaia osatzen duten ordezkari horiek.

Batzar Orokorra, Ohikoa zein Ez Ohikoa, behar bezala osatzeko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

Batzarraren aurretik Federazioa osatzen duten IGEek agiri bat bidaliko diote Zuzendaritza Batzordeari; agiri horretan Batzarrera bidaliko dituzten ordezkarien izena, datu pertsonal eta sozialak eta ordezkari bakoitzari dagokion boto kopuruaren berri emango dute IGEek. Idazkariak sinatua, Lehendakariak berretsia eta behar bezala zigilatua beharko du izan agiriak, baliozkoa izan dadin.

Batzarrean zein IGEren ordezkari gisa parte hartuko duten, IGE horretako kide izan behar dute nahitaez ordezkariek;

## ARTICULO 13º . - CONSTITUCION DE LA ASAMBLEA GENERAL

Las Asambleas Generales, tanto ordinarias como extraordinarias, quedarán válidamente constituidas en primera convocatoria cuando concurran a ella representadas, la mitad más una de las AMPAs Federadas y que a su vez, representen como mínimo al 51% de la cuota total de representación. En segunda convocatoria, cualquiera que sea el número de AMPAs y de porcentaje concurrentes.

Para la correcta constitución de la Asamblea General, tanto Ordinaria como Extraordinaria deberán observarse los siguientes aspectos:

Las AMPAs asociadas remitirán a la Junta Directiva antes de cada Asamblea, una certificación indicando, además de los nombres de los/as Representantes, sus datos personales y sociales, así cómo el número de Votos que se atribuye a cada uno de ellos/as. La certificación irá firmada por el/la Secretario/a con el Visto Bueno del Presidente/a, y deberá estar debidamente sellada.

Los/as Representantes deberán pertenecer necesariamente a la AMPA a la que van a representar en las Asambleas, la

IGEek, bere aldetik, Federaziorekiko dituen betebehar guztiak bete beharko dituzte Batzarrean boto eskubidea baliatu ahal izateko.

cual tendrá que estar al corriente de sus obligaciones con la Federación, para poder ejercitar su derecho a voto.

**14. ARTIKULUA. - BATZAR OROKORRAREN ERABAKIAK**

Batzar Orokorrak gehiengo sinplearen bidez hartuko ditu erabakiak. Berdinketa gertatuko balitz, etenaldia egingo da jarrerak bateratzeko ahaleginak egiteko eta ondoren beste bozketa bat egingo da; bigarren bozketan ere berdinketa gertatuko balitz, Lehendakariaren kalitatezko botoa izango da erabakiorra. 11. Artikuluari dagozkion erabakiak hartzeko Ordezkaritza Kuotaren bi herenen aldeko botoa beharko da bozketan. IGE bakoitzak Estatutu hauen arabera ezagutzen zaion boto kopurua izango du.

**ARTICULO 14º . - ACUERDOS DE LA ASAMBLEA GENERAL**

Los acuerdos de las Asambleas Generales se adoptarán por mayoría simple; en caso de empate, tras un receso para acercamiento de posturas, se realizará nueva votación, y de persistir el empate, decidirá el voto de calidad del Presidente/a. Para los acuerdos referidos al Artículo 11º, ser requerirán los 2/3 del total de la Cuota de Representación, en el momento de la votación. Cada AMPA tendrá el número de votos que tenga reconocidos en estos Estatutos.

**15. ARTIKULUA. - ZUZENDARITZA BATZORDEA**

Zuzendaritza Batzordea Federazioaren ordezkaritza, gestio eta administrazio organoa da. Federazioaren helburuak betetzen direla eta haren interesen aldeko lana bide onetik doala begiratuko du zuzenean eta etengabe, agintaldi guztian zehar. Estatutuak bete eta betearaziko ditu eta Batzar Orokorraren erabakiak aurrera eramango ditu. Zuzendaritza Batzordeari dagokio, zehazki, Estatutu hauen 3. Artikuluan aurreikusten diren jarduerak antolatzea.

**ARTICULO 15º . - JUNTA DIRECTIVA**

La Junta Directiva es el órgano de representación, gestión y administración de la Federación. Será el encargado de velar de forma directa y permanente acerca del cumplimiento de los fines y la buena marcha de sus intereses durante todo el ejercicio. Cumplirá y hará cumplir los Estatutos y ejecutará los acuerdos de la Asamblea General. De manera concreta, la Junta Directiva organizará las actividades previstas en el Artículo 3º de estos Estatutos.

**16. ARTIKULUA.- ZUZENDARITZA BATZORDEAREN OSAERA ETA HAUTAKETA**

Zuzendaritza Batzordeak horrela osatuko da: Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria, Diruzaina, eta bi eta hamar artean batzordekide.

**ARTICULO 16º .- COMPOSICION DE LA JUNTA DIRECTIVA Y PROCEDIMIENTO PARA SU ELECCION**

La Junta Directiva estará integrada por: Presidente/a, Vicepresidente/a, Secretario/a, Tesorero/a, y entre 2 y 10 vocales

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

Zuzendaritza Batzordea hautatzeko oinarrizko arau hauek bete behar dira:

**1.-** Federazioko IGE guztiek dute Zuzendaritza Batzorderako hautagai bana aurkezteko eskubidea.

**2.-** Zuzendaritza Batzordeak beren hautagaiak Federazioari aurkezteko eskaera egingo die IGE guztiei, eta hautagaiak onartzeko epearen berri emango die eskaerarekin batera.

**3.-** Federazioko kide diren IGEen proposamena Idazkariak sinatu, Lehendakariak berretsi eta behar bezala zigilaturiko agiri baten bidez helaraziko zaio Federakuntzari.

**4.-** Zuzendaritza Batzordeak eskaera egiten duenetik hogeita hamar egun baino gehiago eta berrogeita bost baino gutxiago izango dituzte IGEek beren hautagaiak aurkezteko.

**5.-** Zuzendaritza Batzordeak hautagai guztien zerrenda eta hautagai bakoitza zein IGEkoa den jakinaraziko die Federazioko IGE guztiei, Zuzendaritza Batzorde berria hautatzeko egingo den Batzarra baino lehenago; halaber, Batzorde berria hautatzeko lagungarriak izan daitezkeen beste zenbait datu ere eman ditzake aditzera, adibidez hautagai bakoitza zein heziketa etapakoa den, zein eskualdetakoa den, edo egoki jotzen diren era horetako beste zenbait.

**6.-** Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kideen kopurua baino hautagai gehiago aurkezten badira, hautagaiak zein eskualdetakoak diren hartuko da kontuan, ahal izanez gero BAIKARAn parte hartzen duten eskualde eta hezkuntza etapa guztiek ordezkaritza izateko moduan.

Las normas básicas, por las que se regirá la elección de la nueva Junta Directiva son las siguientes:

**1.-** Todas las AMPAs federadas tendrán derecho a proponer un candidato/a a la Junta Directiva.

**2.-** La Junta Directiva solicitará de las AMPAs asociadas la comunicación a la Federación de sus candidatos/as, indicando en el escrito la fecha límite de admisión de éstos.

**3.-** Las AMPAs asociadas enviarán a la Federación la propuesta mediante certificado firmado por el Secretario, con el Visto Bueno del Presidente, y debidamente sellado.

**4.-** Entre la fecha en que la Junta Directiva curse la petición y la fecha límite de remisión de propuestas de candidatos deberá mediar un plazo no inferior a treinta días y no superior a cuarenta y cinco días.

**5.-** La Junta Directiva saliente, antes de la celebración de la Asamblea en la que se elija la nueva Junta Directiva, remitirá a todas las AMPAs asociadas la relación de candidatos/as con indicación de las AMPAs a que pertenecen, pudiendo añadir las indicaciones que completen la información necesaria para facilitar la elección, tales como etapa educativa, zona a la que pertenecen y aquellas otras que se consideren oportunas.

**6.-** En el caso de presentarse más candidatos/as que los/as precisos para la composición de la Junta Directiva se tendrá en cuenta la zona territorial de procedencia de los/as mismos/as a fin de componer una Junta Directiva que cuente con representantes de todas las zonas territoriales y etapas educativas que participan en BAIKARA.

**7.-** Aurreko puntuan aipatutako irizpidea aplikatu behar izanez gero eta eskualde bereko hautagai bat baino gehiago egonez gero, boto gehien lortzen dituen hautagaia izendatuko da.

**17. ARTIKULUA. - ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA HAUTATZEA**

Zuzendaritza Batzordeko kideak Batzar Orokorrean aurkezturiko hautagaien artetik aukeratuko dira; bi urtez arituko dira Zuzendaritza Batzordean, batzordeak izendapena baliogabetzen ez badu edo kideek beren borondatez baja eskatzen ez badute; eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko bete behar diren baldintzak:

a) Adinduna izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean den legedian ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.

b) Estatutuek agintzen dutenaren arabera hautatua izatea

b) Elkartutako IGEaren baten kide izatea

d) Bere IGEaren Zuzendaritza Batzordearen aldetik onespena jasotzea

**18. ARTIKULUA. - ZUZENDARITZA BATZORDEKO KARGUAK ETA KARGUDUNEN HAUTAKETA**

Zuzendaritza Batzordeko kargudunak izango dira Batzar Orokorrak hautaturiko kideak, onespena jaso ondoren edo kargu hartzea egin ondoren.

Lehendakari, Lehendakariorde, Idazkari eta Diruzainaren karguak Zuzendaritza Batzordeko hamabost kideek hartuko dituzte beren gain, kide bakoitzak jasotzen dituen boto kopuruaren arabera.

**7.-** En el caso de tener que aplicar el criterio recogido en el punto anterior y existir varios candidatos de una misma zona, será elegido/a el/la candidata/a que obtenga más votos.

**ARTICULO 17º . - RENOVACION DE LA JUNTA DIRECTIVA**

Los miembros que componen la Junta Directiva se elegirán de entre los candidatos presentados a la Asamblea General, por un mandato de dos años, salvo revocación expresa de ésta o por baja voluntaria de cualquiera de ellos, pudiendo ser objeto de reelección.

Para pertenecer a la junta Directiva será preciso reunir los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de edad, estar en pleno uso de los derechos civiles y no estar incurso en los motivos de incompatibilidad establecidos en la legislación vigente.

b) Ser designado/a en la forma prevista en los Estatutos.

c) Ser socio/a de alguna AMPA asociada.

d) Ser avalado por la Junta Directiva de su AMPA

**ARTICULO 18º . - CARGOS DE LA JUNTA DIRECTIVA Y PROCEDIMIENTO PARA SU ELECCION**

El cargo de miembro de la Junta Directiva se asumirá cuando, una vez elegido/a por la Asamblea General, se proceda a su aceptación o toma de posesión.

Los cargos de Presidente/a, Vicepresidente/a, Secretario/a y Tesorero/a, serán elegidos entre los miembros de la Junta Directiva, teniendo

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

en cuenta el numero de votos obtenidos.

**19. ARTIKULUA.- ZUZENDARITZA BATZORDEAREN KARGU UZTEA**

Zuzendaritza Batzordeko kideek bere karguak uzteko izan daitezkeen arrazoiak:

a) Agintaldia amaitzea.

b) Dimisioa ematea.

c) Ordezkatzen duten IGEko kide izateari uztea.

d) Batzar Orokorraren erabakiz, Estatutu hauetako 17. Artikuluak aurreikusitakoaren arabera.

e) Heriotza.

a)atalean aipatzen den arrazoiagatik gertatzen denean kargu uztea, Zuzendaritza Batzordeko kideek zeinek bere karguari zegozkion zereginak betetzen jarraitu beharko dute hurrengo Batzar Orokorra egin eta kargu berriak hautatzen diren arte.

Gainerako egoeretan, b), c) d) eta e) ataletan aipatzen diren kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du hutsik geldituako kargua behin-behineko izendapen baten bidez; behin-behineko izendapena Batzar Orokorrak berretsi edo baliorik gabe utzi beharko du; Batzordearen izendapena onartuko ez balu, beste norbait izendatu beharko du kargu hori betetzeko.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri eman beharko da Elkarteen Erregistroan.

**ARTICULO 19º .- CESE DE LA JUNTA DIRECTIVA**

Los/as miembros de la Junta Directiva cesarán de sus cargos por los siguientes motivos:

a) Expiración del plazo de mandato.
b) Dimisión.

c) Cese de la condición de socio/a de la AMPA a la que representa.

d) Revocación acordada por la Asamblea General en aplicación de lo previsto en el Artículo 17º de los presentes Estatutos.

e) Fallecimiento.

Cuando se produzca el cese por la causa prevista en el apartado a) los/as miembros de la Junta Directiva continuarán en sus funciones hasta la celebración de la primera Asamblea General, que procederá a la elección de los nuevos cargos.

En los demás supuestos b), c) y d) y e) la propia Junta Directiva proveerá la vacante mediante nombramiento provisional, que será sometido a la Asamblea General para su ratificación o revocación, procediéndose, en este último caso, a la designación correspondiente.

Todas las modificaciones en la composición de este órgano serán comunicadas al Registro de Asociaciones.

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

**20. ARTIKULUA. – ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ZEREGINAK**

Zuzendaritza Batzordearen zereginak izango dira:

a) Federazioaren ohiko gestioa aurrera eramatea, Batzar Orokorrak finkaturiko ildoari jarraituz eta haren kontrolpean.

b) Federazioak aurrera eraman beharreko ekintzen programa eratzea.

c) Diru sarreren eta irteeren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera Batzar Orokorrari aurkeztea.

d) Batzar Orokorraren bileretarako gai zerrenda osatzea, eta Batza Orokor Ohikoen eta Ez Ohikoen deialdia egitea.

e) Bazkideen proposamenak eta iradokizunak aztertzea eta horien aurrean behar diren neurriak hartzea.

f) Batzorde Iraunkorrerako ordezkariak hautatzea.

g) Estatutu hauetan jasotzen diren aginduak interpretatzea eta haietako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean diren legeei jarraikiz.

h) Batzar Orokorrak berariazko

**ARTICULO 20º . – FUNCIONES DE LA JUNTA DIRECTIVA**

Las funciones de la Junta Directiva son:

a) Dirigir la gestión ordinaria de la Federación, de acuerdo con las directrices de la Asamblea General y bajo su control.

b) Programar las actividades a desarrollar por la Federación.

c) Someter a la aprobación de la Asamblea General el presupuesto anual de gastos e ingresos, así como el estado de cuentas del año anterior.

d) Confeccionar el Orden del Día de las reuniones de la Asamblea General, así como acordar la convocatoria de las Asambleas Generales Ordinarias como Extraordinarias.

e) Atender las propuestas o sugerencias que formulen los/as socios/as, adoptando al respecto las medidas necesarias.

f) Elegir de entre sus miembros a los componentes de la Comisión Permanente.

g) Interpretar los preceptos contenidos en estos Estatutos y cubrir sus lagunas, sometiéndose siempre a la normativa legal vigente en materia de asociaciones.

erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira bere eskumen esklusiboak

h) Ejercitar aquellas competencias que le otorgue la Asamblea General mediante Acuerdo expreso, siempre que no sean de su exclusiva competencia.

**21. ARTIKULUA.- ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAK ETA ERABAKIAK**

Zuzendaritza Batzordea hilean behin bilduko da, gutxienez, ikasturtean zehar, eta bilera egingo du, halaber, Batzordeko kideren batek hala eskatuz gero. Lehendakariaren gidaritzapean egingo dira bilerak; Lehendakariak bilerara joaterik ez balu, Lehendakariordeak beteko du haren zeregina, eta ez bata ez beste ez baleude, Idazkariak edo Diruzainak, hurrenez hurren.

Zuzendaritza Batzordea biltzeko deialdia Lehendakariak egin beharko du, bilera eguna baino 72 ordu lehenago, gutxienez; deialdiarekin batera gai zerrendaren berri eman beharko du. Bilera lehenengo deialdian osatuko da Batzordeko kideen erdia gehi bat biltzen direlarik, eta bigarren deialdian lehenengoa baino ordu erdia geroago, edozein dela ere parte hartzaileen kopurua.

Erabakiak botoen gehiengo sinplearen bidez hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da, eta emaitza bera aterako balitz Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

Idazkariak akta osatuko du Bileretan aztertzen diren gaiekin; ondoren Federazioaren Akta Liburuan berridatziko du akta bakoitza eta laburpena bidaliko die Federazioko kide diren IGE guztiei.

Zuzendaritza Batzordeak ez du eskumenik inolako ondasun higiezinik besterentzeko eta diru mailegurik hartzeko (Urteko Aurrekontuaren %20 baino gehiagoko diru kopurua denean), aldez aurretik horren berri ematen ez badio

**ARTICULO 21º.- REUNIONES Y ACUERDOS DE LA JUNTA DIRECTIVA**

La Junta Directiva celebrará sus reuniones mensualmente en el período escolar y cuando lo solicite alguno de sus componentes. Será presidida por el/la Presidente/a y, en su ausencia, por el/la Vicepresidente/a y, a falta de ambos y por este orden, por el Secretario/a o Tesorero/a.

La convocatoria la hará el/la Presidente/a con una antelación mínima de 72 horas sobre la fecha de la reunión, expresando el Orden del Día, fecha y lugar de la reunión. Quedará válidamente constituida en primera convocatoria, cuando asistan la mitad más uno de sus miembros, y en segunda convocatoria, media hora más tarde cualquiera que sea el número de asistentes.

Los acuerdos se tomarán por mayoría simple de votos. En caso de empate, tras un receso para acercamiento de posturas, se realizará una nueva votación y, de persistir el empate, decidirá el voto de calidad del Presidente/a.

De los asuntos tratados en las sesiones, el/la Secretario/a levantará Acta y la transcribirá al Libro de Actas de la Federación, enviando un resumen de la misma a todas las AMPAs Federadas.

La Junta Directiva no podrá enajenar los bienes inmuebles ni tomar dinero a préstamo (superior al 20% del Presupuesto Anual) sin previo acuerdo en este sentido por la Asamblea General Extraordinaria.

Zuzendaritza Batzordeak eskumena izango du egoki iruditzen zaion moduan erabiltzeko Ohiko Batzar Orokorrak onarturiko Aurrekontua, hark erabakitakoari jarrituz betiere. Lehendakariak edo Diruzainak baimenduko ditu zordunketa, idatzia eta faktura guztiak.

La Junta Directiva dispondrá dentro del Presupuesto aprobado por la Asamblea General Ordinaria, sí bien con esta limitación, de amplias facultades para su uso. Todos los cargos, escritos y facturas serán autorizadas por el/la Presidente/a o Tesorero/a.

